

«Guda hotzak oraindik eragina du gugan, badago iruditeria kolektibo bat mugak tinko mantentzen dituen»

Aitane Goñi Landarekin solasean



Itsaso Larramendi Elexgaray
Arkitektoa

Bidaltze data: 2018-10-01
Onartze data: 2018-10-10

Aitane Goñi Landa (Meñaka, 1990) historialaria da. Gauza zaharrak ikustea eta kuxkuxeatzea dira haren afizio nagusiak, eta kasualitatez murgildu zen argazkilaritza munduan, 60ko hamarkadako kamera batek eragindako erakarpenak bultzatuta. Harrezkero argazkiak ateratzen dirau, bai modu profesionalan Arriguri izeneko ekoiztetxe-laborategian, bai modu esperimentalagoan bere egunerokotasunaren memoria eraikiz. Jugoslavia zaharreko herrialdeetatik egin berri duen bidaia aitzakiatzat hartuta komunismo garaiko eraikinak azalera ekartzeko gonbita luzatu diogu. Hiriez, gudaren markez eta memoriaz ibili gara solasean.

Aldiri: Azaleko collagean eraikin baten egitura da beregain idatzitako mezuen euskarri. Azalduko diguzu ideien jatorria?

Aitane: Azalean eraikin-eskeleto baten argazkia ageri da eta haren zutabeetan Bosniako gudari erreferentzia egiten dioten esaldiak irakurri daitezke. Herrialde honetan 90ko hamarkadan izandako gudaren eraginez erabili ditut esaldi horiek. Nik, arkitektura eta grafitiak irudi batean batu baino ez dut egin. Historialaria naiz eta memoria egitea gustatzen zait, berdin niretzako bada edo besteekin konpartitzeko bada, eta azaleko irudia osatzeak horretarako balio izan dit.

AAA: Komunismo garaian Europa ekialdean zehar eraikitako eraikinek estilo bereizgarria dute: bloke izugarri altuak, material xumeen erabilera, errepikapena, soiltasuna... Mendebaldetik begiratuta, eraikin horiek sortutako paisaiak inpaktu estetiko indartsua dute gugan. Zer iradokitzen dizute zuri hormigoizko blokez osatutako auzo horiek?

A: Niri malenkonian antzeko bat iradokitzen didate. Baina baita poza ere. Monumentuak dira, eta erantzuna badakidan arren, zera pentsatzen dut inbidiaz, zergatik ez dago horrelakorik nire herrialdean? Hala ere, esan beharra daukat hunkidura hori hemen ere sentitzen dudala. Bertoko eraikin hutsek ere asko erakartzen naute. Askotan pentsatzen dut «nola eduki ditzakegu horrelako altxorak hutsik?».

AAA: Gure mendebaldeko iruditerian Jugoslavia eta Sobietar Batasuna (SESB) bezalako herrialdeak ekonomiaren ideiekin guztiz lotuta daude. Europa ekialdea - komunismoa lotura saihetsezina da.

A: Bai, eta lotura horrekin batera nolabaiteko mespretxua ere sumatzen dut nik. Azken finean, urte askotan zehar guda hotz bat egon zen eta oraindik eragina du gugan. Ordutik ez dira belaunaldi asko igaro eta badago iruditeria kolektibo bat muga horiek tinko mantentzen dituen. Diskurtso hegemonikoek beti esan izan digute komunismoa txarra dela, ekialdeko herrialdeak arriskutsuak direla; baina gaur badakigu ez dela horrela. Oraindino mantentzen dugu jarrera paternalista (guk geuk), herrialde horiek familia on bateko ardi errebeldea izan balira bezala, galbidean ibili ondoren bide ona hartu duena.

AAA: Gaur egun ekialdean ere kapitalismoan zeharo murgilduta dauden arren, oraindik nolabaiteko fetitxe edo nostalgiarekin begiratzen dugu sortaldera.

A: Egia da, badago izan zenaren nolabaiteko miresmen erromantikoa, baina nire kasuan defektu profesionala dela esan dezaket. Historialaria izanik bi gauza dituzu gustuko: kuxkuxeatzea eta gauza zaharrak ikustea. Berdin dio non zauden, kotilleatu egingo duzu, eta berdin du zer den, zaharra bada asko gustatuko zaizu. Uste dut berdin gertatuko litzaidakeela, beste edozein herrialderi buruz berbetan ibiliko bagina.



Irudiaren egilea ~ Mikel Remak.

Hala ere, nostalgiaren kontu honi helduta, nire esperientzia kontatuko dizut, nola lotzen diren arkitektura eta nire ezagutzeko nahia. Klaseko lagunekin Euskal Herri «osoan» barrena eraikin abandonatuen bila ibili nintzenean lotu ziren bi osagai horiek arkitekturarekin. Berdin zitzaidan baserriak ziren, pertsona aberatsen etxeak ziren edo ezkaratzak ziren, beste modu batera ezagutuko ez nituzkeen lekuak ikusteko bidea zen hura.

AAA: Balkanetara itzuliz, herrialde horietan pentsatzean gudaren gaia ere oso presente dago. Bertatik egindako bidaian turismoaren eta gudaren arteko harremanean jarri duzu begirada. Zergatik?

A: Azken finean, mendebaldeko Balkanetan I. Mundu Gerratik daramate ia guda etengabea. Orain dela urte batzuk Kroazian egon nintzen eta giro berezia nabaritu nuen, memoria eta nostalgiaren arteko nahasketa bat, esango balute bezala «hau gertatu da eta ez ezazue ahaztu». Oraingoan itzultzea proposatu zidaten baina Jugoslavia osotik buelta bat egiteko asmoz, eta pentsatu nuen: Kroazian hura ikusi banuen zer egongo ote da Bosnian, Kosovon, Serbian? Kroaziak, beste herrialdeekin alderatuta, beste turismo mota bat dauka. Turismo kultural gehiago dago erromatarren garaiko aztarna asko baitaude, baina Bosnia eta Serbian sartzean tentsio berezia nabaritzen da. Gudaren presentzia askoz ere bortitzagoa da, eta presentzia hori erreklamo modura erabiltzen dute. Turistentzako erreklamo bezala, zeren hondamendia eta katastrofea aparteko edertasuna duten espektakuluak balira bezala uler baitaitezke.

AAA: Egia da Bosniako hormetan gudako marka asko antzeman daitezkeela oraindik. Bala-zuloak nonahi daude, bai eraikin abandonatuetan baina baita jendea bizi den etxebizitzetako arropa eskegiaren parean ere.

A: Horrenbeste tiro-zulo ikusteak zeure buruari zera galdearazten dizu: zertan ari naiz hemen? Zer ari naiz

kontsumitzen? Oporretan nago ondo pasatu nahi dudalako ala morboak ekarri nau hona? (ni, zalantzarik gabe, morboak eraman ninduen hara). Bisitariak poz-pezik goaz handik hormetako markak ikusten, garai hartako sufrimendua egun irudi bat baino ez delako.

AAA: Paradoxikoa da nola guda bezalako gertaera gordinak ere kapitalismoak irentsi ditzakeen. Zenbait hiritan, hormigoian gudako markek dirauten bitartean, balak salgai daude souvenir bezala.

A: Hori ikusi eta pentsatzen duzu: nola da posible guda bezalako gertaerak ere merkantilizatzea? Balak souvenir bezala saltzea? Gudako txalekoak daude salgai, uniformeak, pistolen karkasak... Hala ere, kontuan hartu behar dugu ez dela erraza izan behar gainontzeko herrialdeak turismoari begira dauden bitartean norabide horretara ez begiratzea. Ia herrialde guztiak daude egun turismoarekin bueltaka, eta normala da hauek ere atzean geratu nahi ez izatea. Eta gehiago Europako herrialde umilenak izanda eta Europar Batasuna atzetik tiraka dutenean. Diru-sarrerak lortzeko irtenbiderik arinena izan daiteke agian, batez ere hori delako orain bogan dagoena.

AAA: Hala ere, marka horiek gutxi-gutxika ikusezin bihurtzen ari dira birgaitze-lanei esker. Zure historialari-begiradarekin nola bizi duzu hori? Historiaren aztarnak mantentzearen eta garai berriei lekua egitearen arteko tentsio hori.

A: Batzuetan sortzen dira kontraesanak edo aurkako iritzi modukoak. Guda-markak ikustea ikusgarria da gurea bezalako belaunaldi batentzat, inoiz ez baitugu lehenago horrelakorik ikusi eta uste dugulako, gainera, ez dugula horrelako biziraupen-egoerarik bizi beharko. Baina aldi berean, aurrera egiteak iragana ezabatzea esan nahi ez duen arren, gauzak konpontzea eta aitzina joatea beharrezkoa da.

Hala ere, nire ustez badago nolabaiteko tentsioa gudako

markak erreklamo modura egotearen eta kentzearen artean. Guda-markak hor uztean, nolabait monumentu bilakatzen dira zuloak, suntsipenaren monumentuak sortzen ari dira, edo izan daitezke, baita ere, gertatutakoaren memoriari omenaldiak. Ulertzen dut ikuspuntu hori ere, hau da, gertatu dena gogoratzeko markak uztearen aldeko erabakia hartzea. Eta bai, memoria garrantzitsua da, baina noiz arte behar izango dira marka horiek? Badago beste kontu bat gudako markak uztearekin lotuta: biktimaren estigma eta posizio hori betikotu egiten dela. «Sarajevoko arrosak» ikusi eta babesik gabeko hiria izan dela transmititu dezakete, indartsua ez den hiria, babesgabea.

AAA: Azken finean, hiria historiaren eszenografia konstantea da, pasatako urteen lekukoa ere baden bezala. Zure argazkiek ere badute lekuko izatearen bokazio hori. Memoria gordetzeko nahia.

A: Beti eduki dut gauzak ahaztearen beldurra. Gauzak sarri ahazten ditut, eta beldur horrekin argazkiak ateratzeko beharra sentitu nuen, bestela dena ahaztuko nuela uste bainuen. Imajinatu, oportetan nonbaitera joan eta hurrengo urterako ahaztu! Eta gauza eta espazio fisikoez haratago sentimenduak ere gordetzeko helburuarekin hasi nintzen argazkiak ateratzen. Kasualitatez izan zen gainera. Interneten bigarren eskuko gauzak begira kamera analogiko bat ikusi nuen. Erosi, eta lehenengo argazkiak egitean flipatu egin nuen. Kamera bera elementu zahar bat izateak ere asko erakarri ninduen, nolabaiteko objektu fetitxea zen niretzat, eta bueno, egia da ni apur bat bildumazalea ere banaizela.

AAA: Erabilitako teknikak ere badu harremanik nahi horrekin? Zure argazkietan sarri ikus ditzakegu mugitutako irudiak, argiak belatutako paisaiak, hauts-izpiak...

A: Bai izan daiteke. Nik ez dut argazkilaritzan ikasketa formalik, ez naiz argazkilaria, eta horrek askatasuna ematen dit nahi dudana egiteko. Ez zait inoiz axola izan argazkiak

teknikoki nola atera. Gauzeekin eta momentuekin gogoratzeko ateratzen ditut argazki gehienak, eta ez diot argazkiari berari garrantzi handirik ematen, erretratua bera ikustean zuzenean memoria egiten dudalako. Azken helburua memoria gordetzea da, baina datazioaren zentzuan, katalogazio-zentzuarekin, nolabaiteko artxibo propio bat osatzeko.

AAA: Eta amaitzeko, Arriguri zer da?

A: Arriguri kolektibo eta laborategi artistiko gisa sortu genuen eta egun ekoiztetxe bat da, profesionalizatzeko pausoa eman baitugu. Nik argazki-sesioak egiten ditut bai eta arropa propioak sortu ere: serigrafia, oihalen estanpazioa, alkandoren diseinua...

Gure lana bi web orrialdetan ikusi daiteke. Bata labie.com da eta laborategi-izaera dauka. Ideia askoren jatorriak eta gure makarradak gordetzen ditu, gure lanaren alde esperimentalena. Eta bestea arriguri.com da, gure lan profesionalaren erakusleihoa, bideogintza eta argazkilaritzako lanak, besteak beste.

===